

# Baleike

Zumaiako herri aldizkaria. 4. go zbkia. 1994ko iraila. 100 pzta.

Elkarrizketa:

**Elena Irureta:**

**Ofiziotik afiziora**

Musika:


**Zumaiako rockero  
gazteak**

Antimilia:


**Objezioaren lehen  
pausoak**

Natura:

**Zumaiian zehar (II)**




**Xabier Kalparsoro:  
argitu gabeko heriotza**



*Hain zaharra ere ez den argazki honetan, ikusten da zubi txikia, Foronda eta ingurukoak gehiegi aldatu ez badira ere, bertatik pasatzen diren ibilgailuak oso ezberdinak direla.*

Argitarapen honen edizioko laguntzaile:

En la edición de esta publicación colabora:



**kutxa fundazioa**  
**fundación kutxa**

Argitarapen honen edizioko laguntzaile



**CAJA LABORAL**  
**EUSKADIKO KUTXA**

## BALEIKE

### HERRI ALDIZKARIA

Foronda kultur etxea  
tfnoa: 86 10 56

#### ARGITARATZAILEA

#### ZUMAIAKO GAZTE BATZORDEA

#### LAN TALDEA

Iratxe Aizpurua  
Esther Martinez  
Itziar Manzisidor  
Xabier Azkue  
Igor Uranga  
Josu Waliño  
Gorka Zabaleta  
Juan Luis Romatet

#### PUBLIZITATEA

Amaia Korta  
(860422)

#### KOLABORATZAILEAK

G.E.G., Natur taldea, Miriam  
Romatet, Aitor Leiza, Izar  
Martin, Imanol Manterola,  
Daniel Carballo

#### INPRIMATEGIA

Gertu Koop. E.  
(Zubillaga - Oñati)

Tirada: 600 ale

Lege gordailua: SS-405/94

BALEIKEk ez du bere gain  
hartzten aldizkarian adierazitako  
esanen eta iritzien  
erantzunkizunik.

Zumaiako Udalak diruz  
lagunduriko aldizkaria



Argazki Zaharra.....	2
Hitzaurrea.....	3
Iritzia AEK eta Zumaiako Udala .....	4
Elkarrizketa: Elena Irureta.....	5
Ze Berri?: Lanbide hastapeneko tailerrak.Baltsa.....	8
Hezkuntza: Zumaiako Institutua.....	10
Natura: Santixo,Artadi eta Bedua inguruak .....	12
Erreportaia: Xabier Kalpartsoro hil zela urtebete.....	14
Gaztedia: Beste aukera bat .....	17
Komikia .....	18
Antimilitarismoa:Objezioaren lehen pausuak.....	20
Sexualitatea: Argi ibili eta kondoia erabili !.....	22
Inkesta fotografikoa: Zineari buruz.....	25
Izerdi Patsetan: Denboraldi hasierak.....	26
Literatura: Bertsoak.....	28
Kultura: Julene Azpeitia.....	30
Musikaz blai:Rockero gazteak.....	32
Denborapasak.....	34
Merkatu txikia.....	35
Gutunak.....	35

## Hitzaurrea

Abuztua jua zaigu eta eibartarrak eta gainontzeko bixitariak hasiak dira beren herrietara erretiratzeko. Orain zumaiarrok desiratzen gaude eguraldi ona egiteko, bai baitakigu hondartza oso pakiosoa eta ederra egoten dala iraila aldean.

Badakigu bai batzuk lanean ariko zeratela eta haur eta gazte dexente ikasten edo eta azterketak egiten zaudetela (animo, neska-mutilak!!), baina aldizkari honi bistazo bat emateko sikira tartetxo bat topatuko dezue, ez ta?(kumunera juaterakoan besterik ez bada).

Futbola, eskubaloia, saskibaloia eta gainontzeko guztiak hastera doazen hontan, ezin degu ahaztu arraun denboraldia hil hontan amaituko dela; aurten ere, sartu ala ez sartu urtero egin ohi degun bezela, hilaren 1 lea goazen Donostiara danok gorriz jantzita, gure arraunlariekin bat egin eta egun eder bat pasatzera. Txintxo ibili!!

#### PREMIAZKO TELEFONOAK:

Kultur Etxea .....	86 10 56	Tren Geltokia.....	86 11 27
Polikiroldegia.....	86 20 21	Taxi geltokia.....	86 13 60
Gurutze gorria.....	86 10 93	Bake epaitegia.....	86 00 67
Udaletxea.....	86 02 50	Posta.....	86 15 00
Gizarte Zerbitzuak.....	86 22 00	Udaltzaingoa.....	86 18 70
Osasun zentrua.....	86 08 62	Pilotalekua.....	86 21 72
San Juan Egoitza.....	86 12 73	Larrialdi zerbitzua.....	46 11 11
Pentsiodunen Egoitza.....	86 17 00	Ludoteka.....	14 32 64
Musika eskola.....	86 11 83	Informazio sexuala.....	32 04 44

# AEK ETA ZUMAIAKO UDALA

Montse Arana. Zinegotzia.

Ez dira gaurkoak Zumaiako Udalak eta AEK-k mantendu dituzten harremanak. Aurreko urteetan egon diren bilerak ugari izan dira, baita AEK-k Udaletik jaso duen laguntza (nahikoa izan ez bada ere) bai diruaren aldetik eta baita lokalak erabiltzeko orduan ere. Azkenengo bi kurtsoak alde batera uzten baditugu, ordura arte beti eman zaio AEKri eskatu duena (500.000 pzta, 600.000, ...).

Aurreko legealdian zenbait bilera izan ziren akordio batera iristeko asmoz ... Ez zen posible izan.

Legealdi honetan gure asmoa, Gobernu Batzordean gaudenona alegia, HABErekin hitzarmena sinatuz Herri Euskaltea / Udal Euskaltea bultzatzea zela azaldu genuen. Honen aurrean AEKk beste hitzarmen proposamen bat aurkestu zigun: lokalak, defizita (5.000.000 pzta), etab. Modu honetan Udalak ez zuen Administrazioetik inongo laguntzarik jasoko.

Azkenengo bi urteetan izan ditugun bilerek helburu bakarra zuten: kontutan hartuta AEK-k urte hauetan egin duen lana eta Administrazioak, HABEren bidez eskeintzen duen laguntza (pedagogikoa, didaktikoa, ekonomikoa, ...) herriko Euskaltea osatzea. Gure aldetik betebeharreko baldintzak lan kontratoak ziren; horregatik AEK-ri eskeini zitzaioan irakasleak kontratatzeko ahalmena. Era honetan Udalak irakasleak ordaintzeko laguntza handia



AEKren euskaltea berria ere prestatzen ari dira, Erribera kalean hartu duten lokalean.

jasoko zuen HABEtik eta, gure ustez, herrian euskararen normalizaziorako pauso handia emango zen. Honen aurrean AEK-k eman duen erantzuna garbi gelditu da. Beraz, gure erabakia aurrera egitea izan da

Bitartean eskualde mailan beste aukera bat sortu da. "Nabarmena da gure ustez, euskeraren normalizazioa eskualde mailako ikuspegiz landuko duen azpiegitura behar dela. Euskaren Aholku Batzordeak beraz, gomendio garbia egiten du, eskualde mailako azpiegiturak sortu eta zerbitzu amankomunak emateko". "Mankomunitate mailako euskera-zerbitzu bat antolatzea litzateke". Ideia hauek ez dira nereak, HB

taldeak Mankomunitatean aurkeztutako dokumentutik ateratakoak baizik.

Hain zuzen hau da sortu den posibilitatea: Zarauzko Euskaltegiak dituen errekursoak aprobetxatuz eskualdeko herrietan dagoeneko dauden eskeintzak zabaldu eta indartu, edo berriak sortu. Hori izango da joratu nahi dugun bidea. Ez da posible izan herri mailan hitzarmena lortzea, baina gure ustez ezin dugu Administrazioak eskeintzen duena galdu.

Beraz, prozesu honen emaitza udazkenean ikusi ahal izango dugu, 94/95 ikasturtean martxan hasiko baita Herri Euskaltea, Udalak Amaia plazan dituen lokaletan.

# ELENA IRURETA, OFIZIOTIK AFIZIORA

**Lan egitearekin batera sortu zaio Elenari antzerkirako afizioa**

Antzerkia da Elena Iruretari benetan gustatzen zaiona. Hala ere azken bolada honetan sarritan ikusi degu telebistako hainbat lanetan. "Bi eta Bat" saioak izandako arrakastak eraman du zumaiar hau jendearen aurrean ezaguna izatera.


*Baleike*

*Nola hasi zinen antzerki munduan?*

Orain hamalau urteko kontua da. Garai honetan, "Antzerti" izena zuen eskola ireki zen eta bertan Kandido Uranga eta Inaxio Tolosarekin batera ni neu ere eskola honetan sartu nintzen; lehen promoziokoak ginen.

*Afizioa nondik datorkizu?*

Afizioa baino gehiago, pixkat kasualitatez hasi nintzen. Hamazazpi urtekin dagoeneko dentista batekin nenbilen lanean eta 21 urtekin Madrilera joan nintzen "Artes y Oficios" ikastera. Hemen urtebete igaro ondoren, Londresera abiatu nintzen eta han izan nituen nire lehen kontaktu profesionalak. Londresetik bueltatzean berriro dentista batekin hasi nintzen lanean eta lehen aipatu dudan antzerki eskola horretara ere joaten nintzen. Horrela, geroxeago antzerki lanak egiteko beka bat eman ziguten. Egun osoan jarduten genuen lanean, baina bekak ez zigun gehiegirako ematen, bizitzeko juxtu xamar ibiltzen ginen. Baina beno, nola edo hala aurrera jo genuen.



*Lanean ari den azken obran monjarena egiten du Elena Iruretak.*

**"antzerkia telebista baino gehiago gustatzen zait lan egiteko".**

*Denok dakigu antzerkian eta telebistan aritu zarela. Zer nahiago dezu?*

Antzerkia dudik gabe, baina

gertatzen dena da batzutan antzerkia egiteko norberak jarri behar duela dirua. Hala ere, telebistak baino satisfakzio gehiago ematen dizkizu, publikoa zeure mutur aurrean dagoelako, oso hurbil. Telebistarena berriz kriston montajea da, askotan tresna bat gehiago sentitzen zera. Eszenak behin eta berriro errepikatu behar dituzu, nahiko mekanikoa da.



*Eskuak ere ezin ditu geldirik eduki... ia negarrez hasi zitzaigun geldikan egoteko eskatzean!*

**Telebistan lan egiteak zer suposatzen du zure karrerari?**

Telebistan lan egiteak ezagutarazten zaitu eta lana izateko orduan adibidez asko laguntzen dizu, aukera gehiago baitituzu. Berriz, telebistako lana, lan talde handi baten lana da, atzean jende asko dago; polita da eta dexente ikasten da gainera. Gertatzen dena da, telebistak egiten duen produktua saldu egin behar dela eta honek suposatzen du batzutan produktu eskasa egitea, baina publikoarengan ondo saltzen bada hau da garrantzitsua.

**Eta zine munduan zer?**

Gauza batzuk egin ditut baina ez gehiegi. Zine mundua ondo dago, teknika gehiegi dago ordea, antzerkian

gertatzen ez den bezalaxe. Azken boladan, "Arruinados" pelikulan paper txiki bat izan det. Filme hau Bilbon errodatu degu, bertan Imanol Arias, Javier Bardem eta Maria Barranto bezalako aktoreekin lan eginez.

**"Telebistaren helburua saltzea da, produktua ona edo txarra izatearen gaitetik"**

**Jendearen aurrean ezaguna izateak nolako eragina izan du zure bizitzan?**

Ez dit batere eragin. Argi dago beharbada jendeak gehiago ezagutzen nauela orain lehen baino. Baina nire

bizitzari dagokionez, nik betiko martxa eramaten det ez dit batere eragin, ez herrian ezta herritik kanpo ere.

**Nolakoa da aktore baten bizitza?**

Nire bizitza beste edozein pertsonarena bezalakoa da, ez du misteriorik. Hori bai, lanetik irteten naizenean etzait gustatzen laneko kontuez hitzegitea, ez nago lanarekin batere obsesionatua.

**Une honetan proiekturen batean sarturik al zaude?**

Ekainaren 10ean Tolosan "Pekata Minuta" deituriko komedia bat estreinatu genuen. Antzezlan honetan nirekin batera Ane Gabarainek ere lan egiten du. Esan behar, estreinaldi honetan gauza xeble bat gertatu zitzaigula. Antzeztan ari ginela jende guztia parrez lehertzen hasi zen, baina inork ez genekien zergatik. Gero konturatu ginen geure ahotsak jendeak ez zituela entzuten.

**Zure ametsetako papera zein izango litzateke?**

Ez daukat horrelako amets berezirik. Nire ametsa lanbide honetatik bizitzea da, besterik gabe. Ni beti momentuan eskutartean du-dan paperean jartzen det ilusio guztia, ez det beste ezertan pentsatzen.

**ERTZ**  
INFORMATIKA

- \* KONPUTAGAILUAK
- \* OFIZINAKO TRESNAK
- \* AKADEMIA

Mendaro Marineta, 3 behea  
Telefonoa: 143395 ZUMAJA

**Endaizola**

- \* SUKALDERAKO ALTZARIAK
- \* ELEKTROGAILUAK
- \* BAINURAKO BEHAR DUZUN GUZTIA

Erribera, 8  
Telefonoa: 861694

ARRAIN ETA MARISKOAK

**7**

BARAZKIAK ETA AURREZ PRESTATUTAKO JAKIAK

7 MARES IZOZTUAK

*Badirudi Euskal Herrian zinemagintzan eta antzerkian gorakada bat eman dela azken urteotan. Hor ditugu Ulloa, Medem eta beste batzuk. Nola baloratuko zenuke igoera hau? Ze etorkizun ikusten diezu?*

Ez dakit nolako etorkizuna izango duen, baina dudik gabe Euskal Herrian oso jende ona dago; ez bakarrik aipaturiko bi horiek, baita izkutuan dauden beste asko ere. Gaur egun, pelikula bat egitea pila bat kostatzen da eta dirua lortzea ez da batere erraza. Badira diru laguntza publikoak, baina ez dira nahikoa pelikula batek eskatzen duen aurrekontua betetzeko.

*Herrian badaude aktore mordoxka bat zutaz aparte. Hau bapatean sortu den gauza al da?*

Kandido, Inaxio eta nire kasuan bai, hirurok promozio berdinekoak baikera, momentu berdintsuetan hasitakoak. Karmen Balenziaga, Juantxo eta beste batzuek berriz, lehendik dabilta han eta hemen aktore paperak egiten.

*Zumaiaren itxura asko ari da aldatzen. Nola ikusten dezu hau?*

Ba... ez dakit. Gauza batzuk onerako aldatu dira eta beste batzuk ikusiko degu. Ni Zumaiian Gernikako parkearen aurrean bizi naiz eta gogoratzen naiz zona hau lehen nahiko gaizki zegoela, orain berriz parke itxuroso bat bilakatu dute.

*Ze iritzi dezu Zumaiako gazteetaz?*

Badirudi gazteen arteko harremana nahiko mugatua dagoela, bakoitzak bere kuadrilla



*Elena Irureta, lasaiago, haserrea pasa ondoren.*

du eta hortik ateratzea gazteari asko kostatzen zaio. Edonola ere, ni saiatzen naiz hori puskatzen eta pertsonalki gazteekin ondo konpontzen naiz.

**"Nire ametsa gustatzen zaidan ofiziotik bizitzea da".**

*Zure denbora librean, zer da gustokoen egiten duzuna?*

Mila gauza egitea gustatzen zait, ez zerbait espresuki. Geldiezina den pertsona horietako bat naiz.

Horrelako lanbidea duen pertsona batek hainbat anekdota bizi izan dituela ez dago esan beharrik ere. **"Ama begira zazu"** herriz herri antzezten ibili zirenean denetatik pasa behar izan zuten: *"Garai haietan geuk egin behar izaten genuen dena. Gauzak kargatu, deskargatu, eszenatokia montatu,*

*antzeztu, gero berriro ere dena jaso... benetan nekagarria zen. Askotan goizeko zazpiretan bukatzen genuen lana. Gainera herri txikietan eta, tokia ez zen batere aproposa antzezteko: tabladurik gabeko frontoiak, ikastoletako gela txikiegiak... Behin Bidaniara joan ginen "Ama begira zazu" antzeztera. Negua zen eta bi gradu bakarrik egiten zituen. Benidorm-eko numeroa egiteko traje bainu azpitik kamiseta luzea jantzita atera ginen, "Benidorm-en ze frexko egiten duen" esanez. . Gure aldamenen gaztainak erretzen ari ziren bitartean".*

Ia ordu t'erdi eman dugu Elenarekin. Elkarriketa aurrera joan ahala galderen gidoia alde batera utzi, eta bere esperientziak azaldu dizkigu antzezle baten abileziaz. Berea ez omen da jaiotzetik datorkion afizioa, baina elkarriketa amaitzean txaketa ahaztuta utzi zuenean, benetako artista baten aurrean geundela konturatu ginen. ■

# LANBIDE HASTAPEN TAILERRAK MARTXAN

## 16tik 20 urte bitarteko neska-mutilei zuzenduta daude tailer hauek.

**Zabalik dago dagoeneko lanbide hastapen edo tailer okupazional hauetan izena emateko epea; ikasketak utzita langabezia daudenak dira tailer hauetan parte hartu dezaketenak eta aurten, gainera, urrian bertan hasiko da ikasturtea.**

*Baleike*

Udaleko Gizarte Zerbitzuetatik jakinerazi digutenez, LANBIDE HASTAPEN TAILERRAK martxan dira jadanik eta informazio hau interesgarria izan daiteke gazteentzat eta hauen gurasoentzat ere bai. Aurtengoan, ordea, tailerrak urrian bertan hasiko dira eta izen-emateak lehenbailehen egin behar dira.

### Ofizioa ikasteko aukera

Tailer hauen bidez, ikasketekin jarraitzeko gogorik ez duten neska-mutilei ofizio bat ikasteko aukera ematen zaie. Era berean, gazte hauek lan munduan beharrezkoa den heldutasuna lortzea da beste helburu bat, eta honetan asko laguntzen dute ikasketen ondoren lantegietan egiten diren praktikek.

Aurten, aurreko urteetan bezela, lau tailer mota izango dira:

- \* Igeltsaritza
- \* Sukaldaritza eta goxogintza

- \* Margo eta papereztaketa
- \* Hostalaritzako zerbitzu laguntzaile izateko tailerra

Azken biak berriak dira eta aipatu beharra dago, Margo eta papereztaketa eta igeltsaritza tailerrak Orion izango direla.

1994-1995 ikasturte honetan, lehenbizi SARBIDE KURTSOA izango da eta 8 hilabetetan zehar ofizioaren ikaskuntza landuko da, lan formazio eta kulturalarekin batera.

Honen ondoren, SAKONTZE KURTSOA izango da eta 4 hilabetez, ofizioaren espezializazioaz gain, lanpostu bat aurkitzeko teknikak landuko dira.



*Gazteek praktikak egiteko aukera ere izango dute.*

Azkenik, interesgarria da jakitea aurreko kurtsoak amaitu ondoren, eskualdeko lantokietan hiru hilabeteko PRAKTIKAK egiteko aukera izango dela.

Interesatzen bazaizu, Amaia Gize Zerbitzuetan eman dezakezu izena, irailaren 1etik 23ra, baina komeni da aurrez 862200 telefonora deitzea.

### Aurreko urteetako esperientzia

Lehenagotik ere martxan bazeuden ere, azken bi urteetako zenbait datu eskeini nahi dizkizuegu.

1992an lau tailer mota izan ziren: Sukaldaritza eta Goxogintza, Iturgintza, Zurgintza metalikoa eta Igeltsaritza. Guztira 27 lagun elkartu ziren, 9 Julene Azpeitiatik zetozenak, beste 9 Maria eta Josetik, 2 Zumea ikastolatik eta 5 San Pedro ikastetxetik. Beste mutil bat Getariatik etorri zen eta azkena Debatik.

1993an tailerrak ia berdinak izan ziren eta iaz 30 izan ziren izena eman zutenak, 7 neska eta 23 mutil, eta gehienak Sukaldaritza eta Iturgintzan apuntatu ziren. 5 neska-mutil Maria eta Josen ikasitakoak ziren, 15 Julenen, 4 San Pedron eta 2 bakarrik Zumea ikastolan, beste biak kanpotarrak zirelarik.

Ea gazte hauek, krisi garai hauetan, zorte pixkabatekin zerbait bilatzen duten! ■

**Arkupe**  
*Okindegia*  
*eta gosariak*  
 Kale nagusia, 2 ZUMAIA

**L PRACTICAS**      **ZUMAI A**      **STOP**

**AUTO-ESKOLA**

- \* Gida-baimen guztiak ateratzeko baimendua
- \* Praktika eta azterketak Azpeitian
- \* GURE HELBURUA: Gidari trebe eta profesionalak egitea

Basadi, 12 behea  
 ☎ 861018      20750 ZUMAIA



# KIROL PORTUAREN AURKAKO PROTESTALDIA BALTSA BATEAN

**10ean hasi eta abuztua bukatu artean eskoilera atzean egon da**

**Zumaia Bizirik taldeak antolaturiketa 20 egunetan zehar, kirol portuaren aurka protesta egiteko era bitxia aukeratu dute: baltsa batean "akanpada" bat egitea.**

*Baleike*

Abuztuak 10ean jeitsi zuten Bedua aldetik, eta Paolaldera zihoazen zumaiarrek harriduraz ikusi ahal izan dute nola Abaskaleko eskilaren parean, Santixoko paduran, hiru astetan hortxe egon den, mareak gora, mareak behera egiten zuen bitartean.

Honekin Zumaia Bizirik taldekoek Santixoko ingurunea babestu beharreko gunea dela adierazi nahi izan dute, kirol portuaren proiektua salatzearekin batera.

Hilak 12an, estropaden egunean ere hortxe izan ziren eta aipatu beharra dago, akanpada istilu handiegirik gabe burutu dela. Txandak antolatu zituzten, gau ta egun beti ere taldetxo bat bertan egon zedin, eta herriko talde eta kuadrila ezberdinen laguntza izan dute txanda hauek osatzeko orduan.

Baltsak ia 5 metro ditu luzeran eta beste hainbeste zabaleran, eta 11 bidoiren gainean eraikita dago. Argazkian ikus dezakezuenetz, 4-5 lagunentzako moduko kanping-denda bat du alde batean, eta toldo batez estalitako mahai bat bestean, bere banku eta guzti.

Bien bitartean, eskoilera eta paolmuturreko obrak aurrera segitzen dute, eta kamioien trafikoa handia da.

## **24 ORDU BALTSAN**

### **Baltseroak**

Aurten ere kruzero bat egin nahi genuen, oporrak aprobetxatuz, baina txotxa haundirik ez genuenez Santixon izan gera, baltsa batean gainera. Ez pentsa hain gaizki ibili garenik, ordea.

Eskoileratik oinez ura behean zegoenean, edo batelean itxasgoran, nahiko erreza zen bertara iristea. Hantzer egin degun? Habilidadea libre! Komeni da holakoetan konpainia onarekin eta jateko eta edariz ondo hornitua joatea, kontua ez baita gose greba bat egitea.

Gero baltsa ederki montatua zegoenez, mahaian eseri eta edozer gauza egin zitekeen: tertulian aritu, jokoan, kantuan eta instrumentuak eramanez gero, kontzertu bat ematen ere bai, talde batek gau batean egin zuen bezela.

Ura gora zihoala, hegaziak hurbiltzen hasten ziren, eta ederra zen kaioak, txirriak eta bestelako espezieak ikustea prismatikoekin.

Inguruan, ordea, obretako kamioiak aurrera eta atzera dabiltza, paolbide eta hondartzan, baltsari kasu handiegirik egin gabe. Horrek ematen digu amorrazioa; baita beldurra ere.



*Zumaia Bizirik taldeak uretaraino eraman du kirol portuaren aurka daramaten borroka.*

 **Ur-gintza SL**

SANEAMENDUA - KALEFAKZIOA - GAS INSTAKUNTZAK  
GAS NATURALA - INPERMEABILIZATZEAK  
ERAIKUNTZA LANAK - BAINUAK  
SUKALDEKO ALTZARIAK

Iraeta auzoa, z/g

Tel: 148082

78 Posta kutxa

Fax: 148081

20740 IRAETA - ZESTOA

## **NIKOL-ENEA TABERNA**

**Amaiako plaza  
ZUMAIA**

**Tfnoa: 861440**

# ZUMAIAKO INSTITUTUA, ETORKIZUNERAKO PRESTATZEN

Dakizuenez, Hezkuntza Sistemak aldaketa sakona jasan behar du hurrengo urteotan. Hori dela eta, Zumaiako Institutuak egoera berrira moldatzeko ahaleginetan jardun du azkenenengo bi urtetan. Grafiko erraz batzuen bidez adierazi nahi dizuegu zertan datzan aldaketa, zein izango den institutuak hartutako bidea eta zein aukera izango diren Zumaian ikasketa hauek burutzeko.

## 1.GRAFIKOA



## 2.GRAFIKOA

### LOGSEBATXILERGOEGITURA

#### MODALITATEAK

ARTEAK  
NATURETA OSASUNZIENTZIAK  
GIZAETA GIZARTEZIENTZIAK  
TEKNOLOGIA

#### JAKINTZAGAIAK

##### AMANKOMUNAK

- . Sei materia kurtso bietan banaturik.
- . Erligioa. Ikasle goarentzako aukerakoa 1. kurtsoan.

##### MODALITATE JAKINTZAGAIAK

- .Kurtso bakoitzean 3 derrigorrez.
- .Zenbait jakintzagaiak bi maila dute.
- .Unibertsitate edo LH zikloetara pasatzeak zenbait jakintzagai eskatzen ditu.

##### AUKERAKOAK

- .1. kurtsoan bat eta 2.ean bi.
- .LH zikloetara pasatzeak zenbait aukerako eskatzen ditu.

## LOGSE BATXILERGOA

Hezkuntza sistema berri honen barruan, batxilergoarena da aldaketa nabarmenetako bat. Nolakoa da batxilergo berri hau? Bi urtetako iraupena du, eta oso lotuta dago gerora egin daitezkeen ikasketekin, bai unibertsitatea, bai Goi Lanbide Heziketakoak. Gainera bere egitura berriarengatik, ahalik eta bide gutxien ixten saiatzen da.

LOGSE batxilergo honetara iristeko hiru bide dituzu:

- IEE-REM 1.zikloa gainditu.
- LH-FP 1.gradoa gainditu.
- BBB-BUP 2.kurtsoa gainditua edo gehienez bi gai gainditu gabe.

Batxilergo berri honen aurrean, zein da Zumaiako Institutuak egingo duen eskeintza? Modalitate guztiak bilduko ditu, honako jakintzagai hauekin:

## LEHEN IKASTURTEA

Amankomunak

Gaztelania eta Literatura  
Euskera eta Literatura  
Atzerriko Hizkuntza  
Filosofia  
Soin Hezkuntza  
Tutoretza  
Erljioa

Modalitate jakintzagaiak

Matematika 1	Matematika 1
Fisika eta Kimika	Artearen Histora
Teknologia 1	Ekonomia

Aukerakoak

Biologia / Geologia	Marrazketa / Teknikoa	Zuzenbidea	Latina
---------------------	-----------------------	------------	--------

## BIGARREN IKASTURTEA

Amankomunak

Gaztelania eta Literatura  
Euskera eta Literatura  
Atzerriko Hizkuntza  
Historia

Modalitate jakintzagaiak

Matematika 2	Matematika 2
Fisika	Geografia
Teknologia 2	Ekonom. eta Enpresa Antol.

Aukerakoak

Biologia / Kimika	Informatika / Elektroteknia	Adm. / Kom. Proz. / Informatika	Latina 2 / Informatika
-------------------	-----------------------------	---------------------------------	------------------------

Lehen grafikoan ikusi degunez, Batxilergo berri hau bukatu ondoren bi bide nagusi har daitezke: Unibertsitatea eta Goi Mailako Lanbide Heziketako ikasketak, karrera mota edo lanbide-adar bakoitzari Batxilergo modalitate bat dagokiolarik, hurrengo grafiketan ikus dezakezuenaz.

## UNIBERTSITATEA

### UNIBERTSITATE AUKERA

Zientzia-Teknika alorra  
(selektibitateko:  
Matematika 2 eta Fisika)

Osasun Zientzien alorra  
(Biologia eta Kimika)

Humanitateen alorra  
(Latina 2)

Gizarte Zientzien alorra  
(Matematika aplikatua 2)

### BATXILERGO MODALITATEA

\* Natur eta Osasun Zientzia  
\* Teknologikoa

\* Natur eta Osasun Zientzia

\* Humanitate eta Gizarte Zientzia

\* Humanitate eta Gizarte Zientzia

## GOI MAILAKO L.H.

TEKNOLOGIKOA egin ondoren:

Automozioa  
Elektrika-Elektronika  
Mekanika

NATURETA OSASUN  
ZIENTZIENBATXILERGOA

Kimika  
Osasuna  
Elikadura

Nekazari eta Abeltzantza  
HUMANITATE ETA GIZARTE  
ZIENTZIENBATXILERGOA

Administrarritza  
Merkataritza  
Sozio-kulturala



AXIER KIROLAK

Ortega y Gasset, 2  
ZUMAI A

Telefonoa: 862206



BASUSTA  
ERRETEGIA

M<sup>a</sup> Dolores Aizpurua

Pantxita Etxezarreta, 25  
Telefonoa: 862073

20750 ZUMAI A

## BIZKOR FOTOKOPIAK

- \* Enkuadernaketak
- \* Plastifikatzeak
- \* Fax publikoa
- \* Bulegoko materiala

Basadi, 14 behe Tfnoa: 143120  
ZUMAI A Fax: 143120

# SANTIXO HONDARTZA-ARTADI-BEDUA IBILBIDEA

**Udarako ibilaldiekin amaitzeko, hementxe duzue bigarrena**

Agindu genizuen bezela, hemen doakizue Natura Taldea eta Arte Taldeak prestatutako udako bigarren ibilaldia. Oraingoan Zumaia beste hondartzaren abesrastasunak ezagutuko ditugu, Gipuzkoako "basari" interesgarrietako bat, eta Zumaia udalerrri barruan dauden bi auzo: Artadi eta Oikia.

*Natura Taldea eta Arte Taldea*

Ibilaldi honek Gernika Parkean(1), ibai ertzean, du abiapuntua, Zarautzeruntz dihoan errepidearen norabidea hartuta. 500 metro inguru ibili ondoren, Artadira doan bidearen parean eskailera batzuk jeitsita, limoz osatutako hondartzara iritsiko gara(2). Hemen Gipuzkoan dagoen fadura bakarrentakoa ikusiko degu. Bertako landareak, ibaiak dakarren ur geza eta marearen mugimenduaren gazitasun aldaketa geldiezinetara egokituta daude.

Zorte pixkatekin eta prismatikoen bidez, (udaberri edo udazkenean errezago), faduraren landareek eta limoak ematen dizkieten babesa eta janaria probetxatzen duten



*Beduako irlak dira hauek, Artaditik ikusita.*

hegazti akuatiko mota asko ikus ditzakegu, migrazio transeuropearretan atsedenditxo bat hartzen dutenean. Ubarroiak, kaiokak, limikolak, ahateak eta antzekoak, mokoabalak edo koartzak urteroko bixitari huetako batzuk dira.

Faduraren ondoan, itsasoari begira, Zuloaga pintorearen etxea topatuko degu(3). Bertan, Galiziaruntz zihoazen peleginuentzat atsedean eta otoitz lekua izan zen Santiago baseliza topatuko degu. Mende honen hasieran, Ignazio Zuloagak lur hauek erosi zituen, bere pintura estudioa kokatzeko. Gaur egun museoa denaren barruan, eibartar pintorearen lanekin batera, El Greco, Zurbaran, Goya edo Rodinen artelanak ikus daitezke.

Orube hau inguratzen duen hondarrezko bidea jarraituz, taray, nekosta eta pinu artean, Santixoko hondartzara iritsiko gera(4). Goi partean, oso lehorra eta gazia den arenalean, kostako dunetako landaretza larre zabal bitxia azaltzen zaigu. Hondartzaren aurreko zatian, arantzadun landareak, sustrai gogorrekoak, hosto lodiak eta ilez beteta hezetasuna eusteko, egunero itsasoa, haizea eta harearen kontra borroka egiten dute, hazi daitezkeen habitat bakarra ez galtzeko. Atzeko krabelinak, elar eta usaidun beste hainbat landare, belardi eta urteroko landareek, (euskal itsasertzeko arenaletan bakarrak), edertasun handiko paisaia eraikitzen dute.

**ERROTA**  
**ERROTA**  
OPIL - OKINDEGIA



Juan Belmonte, 39 - Tfno. 86 23 68  
Erribera, 2 - Tfno. 14 30 01  
ZUMAIA

**BASADI**




**ALBAITARITZA  
KLINIKA**

DIEGO SAN SEBASTIAN BARANDIARAN  
IÑAKI GARMENDIA MENDIZABAL  
- ALBAITARIAK -

LARRIALDIAK  
- 24 orduetan  
- Zeure etxean  
- Telef. 900-282828  
Abonatu zbkia: 247790

**Basadi, 7 behea  
20750 ZUMAIA  
Tel. 143310**



Paradisu txiki hau errepidera igotzeko dauden eskaileretatik utziko degu. Zumaiaruntzeko norabidea hartuta, 30 metrotara, errepidea zeharkatuko degu, zementozko bidea hartzeko, bide honek landatutako bailara txiki batera garamatza(5). Gure ezkerreko maldan, orain dela urte gutxi sute batek erreta, txori txikiak behatzeko toki ona izan daiteke: tarinak, txinboak, txiioak, kazkabeltzak, burnitxoriak edo pitxartxarrak. Bestaldean, bailara zeharkatzen duen errekarri paralelo, haltza, sahatz eta lizarren erriberako baso txikia soma dezakegu.

Ibarraren ondora iritsita, bidea Karakas Berri eta Karakas Zahar

baserrietara igotzen da, handik eskubialdeko bidetik Basakarte baserrira jeitsiko gera eta aldapa txikia igo ondoren, Artadi auzora(6) doan errepidea jarraituko degu. Auzo hau ezaguna da Etxabetar pelotari familiaren jaiotze lekua izateagatik. San Migeli eskeinitako eleizak kulto zahar baten lekuko badira ere, gaur egun dagoen eraikuntzak aldaketa asko jasan dituzenez, data zehatz bat ematea ezinezkoa da.

Artadiko Urola aldera dauden mendi maldak Gipuzkoako altxor ekologiko onenetakoa gordetzen dute: Kantauriko artadia(7); mediterraneanar ezaugarriko mila urteko landaretza arrastoak, gure probintziaren

aintzinako klimaren lekuko dira. Artea bezela, erratz belarra edo zurbeltza, beroa gustoko duten espezieek (Termofiloak), baso nahastua osatzen dute.

Auzo honetatik, hegoalde-ekialdera begira, autopista atzean, Oikia ikusiko degu(8), S. Bartolome elizaren inguruan. Parroki honetan Andres de Araoz, XVI. mendeko eskultorearen erretaula txiki bat ikus dezakegu, Erdi Aroko kristoren herri irudiarekin batera. Urola ibaiaren erriberetan Kondekua izena duen etxea ere aipagarria da, nahiz eta gaur baserri modura erabili. Honen inguruan, Artadi eta Oikia auzoak komunikatuz, Erdi Aroko zubi ederra ikusiko degu zubi artean.

Artaditik Gorostiagara doan bidetik jeitsiz, beduaruntz joango gara. Bidearen bukaeran Txanton, Juanton eta Kaskante baserrien parean eskubialdeko bidea har dezakegu, pagoen artean(9) Beduako irtetara(10) joateko. Irla hauek oso ondo kontserbatutako fadura landaretza azaltzen dute. Gipuzkoako koartzen kolonia haundienarikoa izatez gain, Bedua gune hezeetara lotuta dauden hegazti askorentzat pausu edo habi egiteko lekua da, arrano arrantzalea barne.

Faduratik irteteko zubia zeharkatu beharko degu eta eskubidera jo Muniosoro- Txikiardi norabidea jarraituz. Alde batera Bedua etxea(11) utziko degu. Etxe honetan merkataritza salerosketak egiten ziren, garaietan, inguruan zegoen porturik garrantzitsuena zenean. Etxearen ondoan garai batean untziola (12) izan zen eraikuntza altxatzen da; bestaldean berriz "hiraulika" fabrika zaharra. Errepideko igoera amaituta, eskubiladera, bide ezberdinak jarrai ditzakegu estaziora(13) iristeko eta bertatik herri erdialdera, gure ibilaldia amaitzeko. ■

# XABI: URTEBETE PASA ETA PUNTU ILUN ASKO ARGITU GABE

**Hil honen 26an beteko da urtebete, Xabier Kalparsoro zumaiar gaztea hil zela.**

**Bertsio ofizialaren arabera, leiho batetik jauzi egin eta egun batzuk koman egon ondoren hil zen.**

**Familiaren arabera, argitu gabeko puntu ilun asko daude 26 urteko zumaiar gazte honen heriotzean. Azken hauekin hitz egin ondoren, gertatutakoaren kronika labur bat jaso degu guztion ezagupenerako.**

*Baleike*

Zumaiako munizipalei Durangokoek egindako dei baten bidez jakin zuen familiak Xabi, edo "Txato" herrian ezagutzen genuen bezela, atxilotua zegoela atrako bat egitea leporatzen zitzaizolarik. Lehen bertsio hau txokantea gertatu zitzaion familiari, kontraesan asko azaltzen baitziren munizipalen hitzetan. Mozkortuta zegoela, familiarekin ez zuela hitz egin nahi, eta beste hainbat kontu esan zizkieten, ondoren gezurtatuak izan direnak.

Gau hartan bertan, senitartekoan lagun bat hurbildu zen Durangoko Udaltzaingora Xabi ikusi nahian. Ez zioten utzi ikusten, baina han zegoen mugimenduagatik beldurtuta geratu zen, ertzain eta polizia nazionalez josita baitzegoen inguru dena. Hurrengo goizean, familia Udaltzaingora azaldu zenean, Xabi han


ez zegoela esan zieten, gaueko hamaiketan Bueren epailearen aginduz poliziak Indautxuko kuartelera eraman zuela. Indautxura joan, eta Xabitaz galdetzerakoan, erantzuna berehalakoa izan zen: "Basurtoko Ospitalean dago". Honen zergatia galdetzerakoan, "Berak eskatuko zuen" izan zen erantzun bakarra.

Hortik aurrerako gertakizunak prezipitatu egin ziren. Poliziak goitik behera kontrolatzen zuen ospitale batean, bere amak ere ezin izan zuen Xabi ikusi, hil bitarteko bi egunetan inkomunikaturik egon baitzen; hil ondoren ere horrela jarraitu zuen

gainera. Senideen esanetan, "egoera benetan latza zen, ospitaleko langilegoagatik izan ez balitz, ez baikenuke jakingo ez Xabi han zegoenik, ezta bere egoerarik ere, hil zela ere enfermera baten bitartez jakin genuen eta".

## Auzia epaitegian

Baina lehen aipatu degun bezela, oraindik argitu gabeko puntu ilun asko daude. Nola liteke komisaldegiko bigarren pisukoleihotik salto egitea? Bertsio ofizialak dionez esposatu gabe eta zerbeza bat edanaz



*Zaila izango da Xabiren heriotzaren inguruko kontuak askoz gehiago argitzea.*



**Azkue Autoak**

Estazioko kalea, 19      Telefonoa: 861433  
20750 ZUMAIA      Fax: 861067

**BALEZULO**

**IMPORTATURIKO  
ERROPA ETA ARTISAUTZA**

**INDIA- NIKARAGUA  
GUATEMALA**

**Basadi, 5      ZUMAIA**



Erribera kalea      Telefonoa: 861523  
**ZUMAIA**

zegoen, polizia bakar batek zaindutako gela batean. Polizia hau lurrera bota eta leihotik salto egin omen zuen. Familiakoen ustez, "jakinekoa da ETako edozein militanteren atxiloketan ez dela horrelakorik gertatu, seguritate neurriak maximoak dira, Ley antiterrorista aplikatzen baitzaie, hau da, inkomunikazio totala. Gainera, Xabier esposaturik zegoen, hil ondoren oraindik esposen markak baitzituen eskumuturretan".

Hontaz gain, autopsia egin zion forentsearen txostenak ere bertsio hau gezurtatu zuen; honen arabera, Xabier Kalparsororen erorketa ezin zitekeen jauzi baten ondorio izan, inolako inpulsozik gabe leiho ertzetik gertaturiko erorketa bat izan behar zuen.

Hau, eta kasu guztia iluntzen duten beste hainbat puntu, epaitegian daude, hiru denuntzia ezberdinen bitartez: familiarena, Torturaren Aurkako Taldearena, eta Zumaiaiko Udalarena, azken honek ere pleno batean tribunaletara jotzea erabaki baitzuen, gaia behar bezela argitu zedin eskatuz.

### **Gutun baten testigantza**

Gertakari guztiak amaituak zirela pentsatzen zenean, Euskadi Ta Askatasunak Egin egunkarira bidalitako komunikatu baten bitartez, Xabiren heriotza salatu zuen, eta honen gutun luze bat erakusten zuen, bertsio ofizial guztiak hankaz gora uzten zituena. Gutun honen arabera, eta ETA berak adierazi zuenez, Xabi,



Algorriko bidean aideratu zituzten Xabier Kalparsororen errausak, senide eta adiskideen artean.

hil baino hilabete lehenago izan zen atxilotua, indar polizial ezberdinak berarekin jolasen ibili zirelarik, "señuelo" gisa erabiliz. Gutuna estranbolikoa da. Txatok bertan adierazten duenez, "atxilotu, drogatu eta interrogatu" egin zuten, eta ondoren kalean utzi zuten berriz ere, bere pausuak jarraituz. Berarekin jolasean aritu ziren, heriotzaren unerarte.

### **Aurten ere omenaldia**

Xabiren heriotzak, Gurutze Iantzirenakin batera, Zumaia eta Euskal Herri guztia aztoratu zituen duela urtebete. Sorturiko mina hainbat

egunetan zehar izan zen ikusgai, eta zumaiarrek eta Euskal Herri osotik inguratutako milaka lagunek omenaldi bero bat eskeini zioten.

Aurten ere, bere heriotzaren urteurrenean, omendua izango da. Omenaldi honetarako, hainbat ekitaldi ari dira prestatzen Dick Turpin kolektiboa izeneko taldekoak. Talde honetan, Xabiren inguruko hainbat pertsona biltzen dira, ahaide eta lagunak gehienbat. Zenbait hitzaldi, Rock kontzertu bat, lore eskeintza eta beste ekitaldi batzuek osatuko dute egitaraua. Ekitaldi nagusia hilak 24an izango da Beheko plazan, baina egitarau osoa garaiz adieraziko da.

**MIREN**  
BAKAILOAREN - ETXEA

KALE NAGUSIA, 4 • TEL. 86 10 01 - 14 30 61

**ZUMAIA**

**LANDARE**  
**LOREDENDA**

Baltasar Etxabe, 5  
Tel. 862472 ZUMAIA

**ZUMER**  
**TABERNA**

Erribera kalea, 2  
Telefona: 861125  
ZUMAIA

## Monagillo izatetik JARRAI sortzera

Gaztetatik borroka batean inplikaturako pertsona bat izan zen Txato. Bere aitona beti omen zioen: "Este me parece que va para político". Urte askotan monagillo aritu ondoren, elizautzi eta urte berean Jarraien hasi zen lanean. Urte ugari egin zituen talde honetan eta ejekutiban bertan ere egon zen liberatu lanetan. Institutuan, ikasle mugimenduan oso sartutako gazte bat bezela gogoratzen dute irakasleek; ikasle ona eta langilea; sinisten zuen gauzen aldeko borrokan ziharduena, ikasketak alde batera utzi gabe.

Euskal Herriaren askapenaren

aldeko borroka honek, Euskadi Ta Askatasunean militatzera eramanez azken etapa batean, eta borroka horretan joan zitzaion bizitza. Bitarte honetan Iparraldean egon zen errefuxiatu. Iaz han zegoela, Zumaiako parrokoaren elkartasun mezu bat jaso zuen, eta honi erantzunaz egindako gutuna da ondoren argitaratzen ditugun lerroek osatzen dutena. Gutun honetan Xabiren nortasuna garbi isladatzen da, eta zenbaitek bestela erakutsi nahi izan badute ere, sentimenduz eta esperantzaz betetako gazte bat zela antzemandateke.



Iparraldean ere egon zen errefuxiatu; orduan idatzitakoa da gutuna



**MENDI - ONDO**  
ELEKTRIZITATEA

- ALARMAK
- ANTENAK
- \* Banakoak
- \* Kolektiboak
- \* Satellite bidezkoak
- Ate zain automatikoak
- Eta abar.

Axular 14  
20750 ZUMAILA

Telefonoak:  
860074 - 861569

Euskalerrian, Apirilaren 27

Kaixo Axentxio!

Berandu bada ere, ez nuke agurtzeko aukera hau galdu nahi.

Badirudi negua amaitu dela, bere hotsasun eta gordintasun zamak iragan direlarik. Aurtengo elurak ere ez ditut dastatu, tamalez. Egun, eguzki izpiriak pertsiana xastarreko zulo txo bitartean azaltzen zaizkit. Hor diraute, ordea. Euriak. Haizeak. Hainbat estimatzen ditudan ur marroizkaz gaineztaturiko potzuak. Eta ene irrikak. Ostadarra begizatzen blaitzeko irrika. Potzutik potzu dantzatzeko irrika. Batez ere, familiarterako eta lagunena berotasuna arnasteko irrika.

Ilusio handiz jaso nuen zure elkartasun mezua. Pozgarria baita, egoera honetan, herritarrek hurbil sentitzea, bihitzen bitartez bederen.

Zalantza barik gogorra da, oso, Zumaiatik urrun gaztaroa kontsumatzea. Alferrik izango ez delakoan nago, ordea. Sufrimendu eta ekimen guztiak gutxi baitira gure Herriarentzat Askatasuna eta Pakea lortzeko bidean.

Erabateko errespetoz, norberak bere ikuspuntutik, norberak bere ahalmenetan, behin betirako bakea ekar ditzazken irtenbide edo soluziobideak asmatzera, bultzatzera, indartzera animatzen zaituztet. Bakea eraikitzea guztion lana denaren konbentzimenduz. Gizarte oren eginkizuna. Eta Elizak, zeresan eta zeregin handia izan dezakelakoan bainago.

Noizbait, hitzeginez, gure herriaren geroa erabaki ahal dezagun. Noizbait gure herriko gizakiek amodioari uko egin beharrean aurkituko ez diren gizon-emakumeengatik maitatuak izan ahal daitezten

Besarkadak eta esker mila.

Xabi



# GAZTEOK BADEGU BESTE AUKERA BAT

## Aurten ere izango ditugu gazteontzako jardunaldi hauek.

**Kultur Etxeak antolatutako ekintza soil bat bezela hasi zen duela hiru urte. Gazte Batzordea sortu orduko, egitarauan parte hartzen hasi zen, eta gaur egun, herriko gazte talde ezberdinen artean antolatzen da **BESTE AUKERA BAT**. Aurtengo edizioa ere prestatzen hasiak dira eta ez omen dator makala, gainera.**

*Zumaia*ko Gazte Batzordea

Baina ... zer da *Beste aukera bat* delako hori? Ekimen honen bitartez, herriko gazteei eskeintza ezberdinak zabaltzen zaizkio, hainbat talde eta kolektiboren artean. Esan degun bezela, hasiera batean Kultur Etxeak antolatutako ekitaldi bat izan zen, guztira lau egun iraun zituena: diapositiba emanaldi bat, hitzaldi bat, pelikula bat eta antzezlan batek osatu zuten egitaraua.

Urtebete beranduago, Gazte batzordearen parte hartzearekin, egitaraua hilabete osora zabaldu zen, ekintza ezberdinak azaroko asteburutan kokatuz. Orduan mural topaketa, mahai-inguruak, ikastaroak, erakusketak, irteerak eta antzeko aukerak eskeini zitzaizkien gazteei, beren denbora librean egoki bete zezaten.

### Taldeen parte hartzea

Gazteei beste aukera bat eskeini

nahi bazaie, jakina, aukera hori ezin daiteke mugatua izan. Horregatik, iaz, herriko gazte talde guztiei egin zitzairen dei antolaketarako, baina gutxik hartu zuten parte: Elizako taldea, Gazte Batzordea, *Gu Ez Goaz* talde antimilitarista eta Jarrai izan ziren antolatzaile, Udaleko Gaztedi Batzordearekin batera, baina azkenean egitaraua zabala osatu zen.

Jardunaldiak luzatu egin ziren, urri eta azaroko asteburuak aprobetxatuz. Ekintzak ugari izan ziren, era guztietakoak gainera: eskaladarako animazioa, malabar tailerrak, afaria, bideoak, mahai-inguruak, filmeak, rafting egitera irteera, erakusketak, etab.

### Aurten gehiago

Bai, bai, aurreko urteetan izan

da. Baina aurten zer? Ezer ez? Ez ba! Aurten gehiago!. Dagoeneko, talde ezberdin horiek jardunaldi hauen edizio berri bat antolatzen ari zaizkigu. Aurtengoan, azaroa eta apirila bitartean, hilero ekintza bat antolatzea pentsatu da. Era guztietako ekintzak izango dira eta badaude ideia batzuk: eskalada ikastaroa, mural topaketa berria, argazkilaritza ikastaroa, irteeraren bat, mahai-inguruak, ...

Hala ere egitaraua oraindik ere zehaztu gabe dago, eta ideia berriak jasotzeko irrikitan gaude antolatzaile guztioi. Beraz, badakizu, ideiarekin bat baldin badezu, Kultur Etxean bertan utzi, edo bestela azaldu beldurrik gabe Gazte Batzordeko bileraren batera, amorratzen gaude eta zuri entzuteko. Animo, eta parte hartu!! ■



*Beharbada aurten ere rafting-eko irteera bat izango da.*



**Zerbitzu Ofiziala**



**ZUMAIA AUTOAK**

Juan Belmonte, 45  
ZUMAIA



Telefona: 861485  
Fax: 143143



BEHIN BATIAN ...



GAZTELUA



ETA NIK ZER KULPA DAUKAT  
EGILEAK HEMEN JARRI BANAU  
KOMIKIAK GIDOIRIK EZ  
DUELA ETA ...



... GAZTELUAK  
MARRAZTEA GUSTATZEN  
ZAIOLA ESATEKO? ...  
... GUTXIENEZ HEGAN EGITEN  
ATERA BANINDU... (Hordun)

# OBJEZIOA GURE HERRIAN

## Zumaiako lehen objetoreek bizitako esperientziak.

**Ale honetan batek eta hurrengoan besteak, Zumaiako lehen bi objetoreek bakoitzak bere testigantza azalduko digute. Honetan Joxeba Ossa Altzibarrena izango degu; 1964an jaio zen Zumaiara. Arruan bizi da, emaztea eta bi seme-alabekin. Iñaki Urangaren esperientziak hurrengo zenbakian eskeiniko dizkizuegu.**

*Joxeba Ossa*

Ez dakit zehatz-mehatz noiz erabaki nuen soldaduska ez egitea, baina 1975 ingurukoak dira lehen oroimenak. Euskal gizartearen giroa oso politizatuta zegoen, baina ordura arte ez zen objezio "politikoa" ezagutzen. Jende kontzientziatu gehiena askapen sozial eta nazionalaren inguruan soilik mugitzen zen. Soldaduskari uko egiten zioten kolektibo bakarra Jehovaharen testiguak ziren, eta arrazoi erlijiosoak zituztenez, kartzelan urte batzuk pasa ... "eta kitto". Ez zuten beste problemarik ematen.

Baina 1975erako Pepe Beunza eta beste batzuk hasiak ziren ejerzitua eta militarismoaren aurkako borrokan lehen urratsak ematen. Indarkeri eza zen beren pentsakera eta estrategiaren oinarri. Batez ere Bartzelona aldean zebiltzan. Oso une latzak pasa zituzten,

baina beren borrokak nazioarte mailan oihartzun handia izan zuen, batez ere preso baten alde Genevatik Valentziara egindako martxa baten ondoren. Lau katu besterik ez ziren, baina beren danborrak zarata handia ateratzen zuen, eta objezioaren mugimendua ("erreka" txiki bat) jaio zen. Guretzat eredu bilakatu ziren, eta Euskal Herrian ere bere lehen urratsak eman zituen objezioak, Bilbon hain zuzen ere.

**Gure jarrera ez zen politikoa soilik, etikoa ere bazen.**

1978tik 1982ra Leioan nintzen ikasketak egiten, eta aukera paregabea izan nuen kontzientzi eragozpenari buruz gehiago jakiteko eta KEM-MOCekin lan egiteko. Orduan ikusi nuen objezioaren borroka ez zela utopia. Jende "asko" zegoela mugimenduan, eta "erreka" zabaltzen zihoala.

**Zumaiara lehen saioak**

1982an Zumaiara itzuli nintzen, urtebete igarotzera, eta ordurako garbi

zegoen gauza: ez nintzen soldaduskara joango. Udaletxetik karta bat bidali ziguten gure "kintako" guztioi, tallatzeko, eta aukera ona iruditu zitzaidan objezioari buruzko kontzientziario kanpaina bat egiteko, Bilboko lagun batzuekin batera.

Tallatzera joan behar zuten guztiei karta bat bidali genien, hitzaldi batera gonbidatuz. Jende dexente etorri zen eta eztabaida interesgarria izan genuen, baina ez zen inor objetatzera animatu. Kartzelaren beldurra handia zen, eta gainera gai hau oso berria egiten zitzaien.

Beste egun batean mahai-inguru bat ere antolatu genuen udaletxean: Zumaiako EGI, Jarrai eta "antimilitaristok" ginen bertan. EGikoek interesa bazuten, baina ez zuten garbi ikusten objezioaren gaia. Jarrairen barnean berriz, ordurako barne eztabaida bazegoen, "soldaduska bai ala ez", baina mahai-inguru hartan postura ofiziala zen nagusi: "soldaduskara joan egin behar da, beren teknikak ikasi ondoren, beraien aurka borrokatzeko". Beraz, mahai-inguruaren emaitza nahiko kaskarra izan zen, eta ez genuen aukera handirik ikusten Zumaiara objezioa bultzateko eta talderen bat sortzeko.

Halako batean "talla" eguna iritsi

## JUARISTI JATETXEA

- \* Arrainak eta haragiak aukeran
- \* Eguneko menua
- \* Jangela klimatizatua

**Basadi Auzategia, 10 ZUMAIA Tfnoa: 861853**



**ITZURUN**  
**KAFETEGIA**  
Itzurun kalea, z/g Telefonoa: 862124 20750 ZUMAIA

zen, eta udaletxera joan nintzen, baina hantxe esan nien funtzionarioei ez nuela soldaduska egin behar ... "Zer? ... -esan zidan batek- zer esan nahi dek?," "Hik ba al dakik zer esatenari haizen?" ("mokoso" deitzea besterik ez zitzaion falta). Parre egin zidan, eta ziur aski pentsatuko zuen txoritxo asko nituela buruan. Min eman zidan, baina oso garbi neukan zer egin nahi nuen, eta halaxe adierazi nion. Bestalde, lotsagarria iruditzen zitzaidan udaletxeak ejerzitoari laguntza ematea... Aukera hura aprobetxatu nahi izan nuen lagunak objetatzera gonbidatzeko, beldurrak kentzeko, baina alferrik izan zen. 1983an Zumaiaetik alde egin behar izan nuen, ikasketekin jarraitzeko, eta hor geratu ziren gure ahalegin guztiak.

## Zenbait gogoeta

Esan beharra dago gure jarrera ez zela politikoa soilik. Etikoa ere bazen (deklarazioa egiterakoan arrazoi pila bat ematen genituen: ideologikoak, etikoak, erlijiosoak, politikoak, moralak...). Ez genion inori joko politikorik egin nahi.

Garbi geneukan zeintzuk ziren gure azken helburuak: gizartean justizia eta bake maila handiagoak lortzea. Eta askok, gainera, askapen sozial eta nazionalarekin uztartzen genuen borroka hori. Horretarako nolabaiteko iraultza behar zen, baina gure iritziz bitartekoez ere justuak eta baketsuak izan behar zuten, mantsoago joan arren.

Guretzat ez zen nahikoa soldaduskari "Ez" esatea. Ez genuen beti "anti" izan nahi (izan ere, geure burua beti "Kontzientzi eragozle" gisa aurkezten genuen, kontzientzia hitza ere garrantzitsua baitzen). Beste zerbait ere egin nahi genuen, lan "positiboa", alegia. Horrela sortu ziren lehen zerbitzu zibil



*Iñaki eta Joxeba, Zumaian objezioaren munduan sartu ziren lehenengoak izan ziren.*

alternatiboak, justiziaren eta bakearen aldeko lan konkretuak egiteko asmoz (Hirugarren Munduarekiko elkartasuna, hemengo kolektibo marjinatekin, bakearen aldeko lanak, objezio fiskala, kolektibo ekologistetan, gaixo eta elbarrituekin...).

Ni kolektibo marjinatekin munduan sartu nintzen, eta bi urtez ihardun nintzen Donostian lanean (84-85). Egia esan, lan hori ez nuen hartu soldaduskara ez joateagatik, baina hura nolabaiteko zerbitzu zibila zen, eta hala adierazten genien militarrei bidalitako gutun batean.

## Lotsagarria iruditzen zitzaidan udaletxeak ejerzitoari laguntza ematea.

Dena den garbi utzi behar da guk egindako zerbitzu zibil haiek ez zirela oraingoak bezalakoak. Ez ziren ezereen "ordezko", ez geniolako Estatuari onartzen gu ezertara behartzeko eskubidea. Borroka egiteko beste modu bat zen, eta bide batez garbi uzten genuen ez ginela "gizartea hautsi nahi duten alperrak".

Gure estrategia desobedientzia zibila zen, eta zerbitzu zibil alternatiboak estrategia horren barruan kokatzen ziren.

Gaur egungoak, ordea, ez dira berdinak. Kasu batzuetan ez dira ezta etikoak ere, nahiz eta esperientzia gisa oso interesgarriak izan daitezkeen. Ordezko zerbitzu zibilak batez ere antimilitarismoaren indarrari aurre egiteko erabiltzen hasi ziren, arazoa leuntzeko, eta beraz, une honetan ez dago arrazoi estrategikorik zerbitzu hauek egiteko.

Gaur egun biderik eraginkorrena insumisioa da, eta horregatik bihurtu da mugimendu antimilitaristaren "abangoardia". Zorionez hasierako erreka txiki hura ibai zabal eta indartsu bihurtzen ari da. Antimilitarismoa gizartearen zati handi batera hedatzen ari da, batez ere Euskal Herrian, eta ez da ikusten hori geratuko duen indarririk.

Ibai horrek ez digu agian ejerzitorik gabeko itsasora eramango, baina izugarritzko astindua eman dio ejerzitoari eta pentsakera militarri, eta gainera, historiak erakusten duen bezala, oso zaila da egitura zaharkitueta itzultzea, batez ere gizarteak berak gaintu dituenean. Hala bedi! ■


# ARGI IBILI ETA KONDOIA ERABILI!

Orain dela gutxi arte gaizki ikusia bazegoen gizonezkoen artean, zorionez gero eta erabiliagoa da.

Kondoia da gure gizartean gehien erabiltzen den antisorgailua. Eskeintzen dituen abantailak, desabantailak baino askoz garrantzitsuagoak dira. Dena den, ondo aukeratu eta erabili behar dira, ezustekorik ez nahi badugu behintzat.

Baleike

Argi dago antisorgailu perfekturik ez dela esistitzen, eta bikote bakoitzak aukeratu beharko duela berari hobeto datorkiona. Hala ere, historikoki ikusten dugu emakumeak izan direla honetaz arduratu direnak. Emakumea haurdun geratzen bazen, erruduna bera zen, gizonezkoak ezer egin ez balu bezela. Eta egia esan, emakumeak obulu bat jartzen duen bitartean, gizonezkoak 200 milioi espermatozoide askatzen ditu eiakulazio bakoitzean. Baina zorionez pentsakera hau aldatu da neurri batean, nahiz eta batzuk oraindik kondoa erabili nahi ez, "sentsibilitatea" galtzen omen da eta. Hauen ustez, kondoa jartzea boxeozko guante bat jartzea bezela da. Aitzakiak. Ez gara ari XVI. mendean animalien hesteekin eginiko



kondoietaz, baizik eta 0.03 milimetrotako latexko kondoi moder-no eta elastikoetaz.

**"Batzentzat,  
kondoa jartzea  
boxeozko guante bat  
jartzea bezela da"**

Baina nahiz eta antisorgailu bikaina izan, batzutan ez dugu nahi genuen emaitza lortzen, eta orduan...

Zergatik failatzen du metodoak? Bi dira arrazoiak : Alde batetik, kondoa bera gaizki fabrikatua dagoelako. Bestetik, bakoitzak egiten duen erabilpen okerragatik. Gezurra badirudi ere, azken hau da arrazoi



**OPTIKA  
ZUMAIA**

Txomin Agirre Kaia, 1 Tel. 143057  
20750 ZUMAIA

**ZALLA  
TABERNA - ERRETEGIA**

- \* Plater konbinatuak
- \* Otartekoak
- \* OILASKO ERREAK  
(Enkarguak jasotzen dira)

San Pedro, 4 Tel. 862387 ZUMAIA

nagusiena eta arazo gehien sortzen dituena. Horregatik komeni da aholku simple baina garrantzitsu batzuk gogoratzea horrelakorik gertatu ez dadin:

1. Oso garrantzitsua da kondoia latexko izatea, eta elastizitate handia izatea: bere tamaina 10 aldiz handitzeko ahalmena izan behar du.

2. Komeni da kondoia espermatozoideen aurkako krema batez inguratua egotea. Pariseko Pasteur Institutuaren arabera gainera, krema honek lan handia egiten du HIES-aren transmisioa galerazterakoan.

## "Batzuk kondoia eiakulatzeko ontzi bat balitz bezela erabiltzen dute"

3. Lehenengo penetrazioaren aurretik jarri behar da. Batzuentzat kondoia eiakulatzeko ontzi bat baino ez da. Horrela, kondoirik gabe penetratzen dute eta eiakulatzeko orduan bakarrik jarri kondoia. Gero noski, "esplikaziorik gabeko" haurdunaldiak etortzen dira.

4. Eiakulazioaren ondoren kondoia zakilarekin batera atera behar da, azken honek tamaina galdu baino lehen. Bestela, espermatozoideek tartetik ihes egin daitezke. Gainera eiakulazioaren ondoren ere ez da komeni berriro ere

penetratzea kondoirik gabe, espermatozoide batzuk gera daitezke eta.

5. Kondoia behin bakarrik erabili! Ez du balio garbitu eta lehortzen jartzea!

## "Estatu mailan urtero 130 milioi kondoi saltzen dira"

### Fabrikako akatsak

Hala ere, lehen esan degun bezela, ez da beti gure errua izaten. Batzutan kondoiak fabrikaziozko

akatsak ditu. Gainera, apirilaren eginiko ikerketa baten ondorioz lortutako emaitzak ez dira oso onak. Ikerketa honen egileek 19 marka aztertu zituzten. Hauetatik bederatzik ez zituzten europar legeak eskatutako baldintzak betetzen: %4an dago gaizki egon daitezkeen kondoiaren limitea (bi urte barru %1,5ean jarriko da). Kontutan izanda estatu mailan urtero 130 milioi kondoi saltzen direla (13.000 milioi pzta), hau hobetu beharra dagoela argi dago.

Gainera, ez dugu ahaztu behar HIES-a ere hor dagoela. Jakinik HIES-aren birusa giza espermatozoidea baino 250 aldiz txikiagoa dela, segurtasun neurriak gogortu egin behar dira. ■

## Ikerketaren emaitzak

**Emaitza ona eman duten markak:** *Durex Gossamer, Lavetra Glyder.*

**Emaitza onargarria eman dutenak:** *Actual Top Quality, Durex Contacto Total, Prime Nuda, Androtex Natura, Family, Farmacoton Natural, Harmony Extrafino, Androtex.*

**Emaitza kaxkarra eman dutenak:** *Control Sensación, Lineafarm Plus, Androtex Anatómico.*

**Emaitza txarra eman dutenak:** *Control Nature, Prime SK 70, Tu y YO, Harmony Normal, LHD Extra, Holysex, French Tickers.*

## xirula



TELEBISTA  
BIDEO  
HI-FI

ARGAZKI ETA BIDEO  
ERREPORTAIK  
ERREBELATZEAK  
KAMARAK  
MUSIKA

Erribera kalea, z/g  
Tel. 861705

20750 ZUMAIA



Basadi Auzategia, 10-A atzean

Telefonoa: 862228

ZUMAIA

# GAZTERIAREN PATROIA DEITZENDA SAN KONDOIN SANTURIK HOBERIKAN EZ OMEN DA INON ASISKO

**BIZITZA**

EZAGUTZEN DUGUN LEHEN KONDOIA AFRIKAN EGINA DA

OHIALEZKOA OMEN ZEN, UKENDU INPERMEABILIGARRIEZ IGURTZIA

ERTAROAN ORDEA, ARKUMETRIPAZ EGITEN OMEN ZUTEN...

Heeee

DUELA 100 BAT URTE KONDOM ALEMANIARRAK KAUTXOKOAK ASMATU ZUEN

HOLAKOHEA OMEN

...TAMAINA BAKARREKOA IZANIK ZEN BAIT ARAZO ZEUKALARIK...

ez al zaio sartzen?

Sartu bas...

...ATERA ez zaio egiten!

GAURREGUNGOA ORDEA LATEXERAZKOAK DUGU, MALGUA, MEHEA ETA GUZTIEZ FIDAGARRIA, ELEKTRONIKOKI TESTATURIK DA ETA ONGI ERABILIZ GERO, ZAKIL, ALU, URSI EDOTA ABIOAREN ARTEKO KONTAKTU ZUZENA GALERAZTEN DU, BAITA BERAIEI IXURKIEN NAHASKETA ERE - Hazia, Aluzukua, Odola, INMUNOESKASIAREN VIRUSARI BIDEA ITXIZ, ETA PENALTYAK BETIRAKO DEUSEZTUZ.

①-ZIURTATU KONDOIAREN PAKETEA EZ DAGCELA ZULATURIK

Kondoiak? bai, mahor gainean pifatunk!

②-DATA BEGIRATU ARRETAZ ... EZ ERABIL 3 URTE BAINO GEHIAGO DUENIK!

...CAN A LOS TRES AÑOS...  
Federica Montseny 1939

③-ESKUZ IREKI PAKETEA SEKULA EZ HORTZETZ EZ EZAZULA URRA

hona hemen, que patroia handia!

④-ZAKIL TENTEAREN GAINEAN JARRI TXAPELA GISAN

PUNTTA  
ERAZTUNA  
ZAKILBURUA  
ZAKILAZALA

EUP!

④-ESKU BATEZ KONDOIAREN PUNTTA ESTUTU, BARNEAN AIRERIK GELDI EZ DADIN!

BESTE ESQUAZ ZAKILBURUA ESTALTZEN HASI

⑥-ERAGIOZU ERAZTUNARI, KONDOIA OSORIK ZABALDU ARTE

ZAKILAZALA ERE BEHERUNTZ TIRATUZ

⑦-ZORIONAK! ORAIN ZAUDE PREST NAHI DUZUNA EGITEKO!

IA IA... HAINBESTE MANIOBREKIN...

ZERA

PIPIPIPI !!

IXURI EGIN NAZELA USTE DUT!

⑧-KORRITU ORDUKO, ETA GOGORTASUNA GALDU BAINO LEHEN, ATERA EZAZU ZAKILA KIDEAREN TXULOTIK ... ERAZTUNARI HELDUTA

KASU ERAZTUNARI

⑨-BEHIN KANPOAN DUZULARIK, ESTUTU BEHEITIK GORA ZURE TUTUA, ORAINDIK GELDI ZITEKEEN HAZI GUZTIA IXURTZEAREN.

...hexaezina zara gero!

Eta, ez zik uste duzunaa...

PIPIPIPI

⑩-KEN ORAIN KONDOIA, KORAPILO BAT EGIN ETA ZAKARRONTZIRA BOTA ...

...EZ BIREKLATU!

eta zenbait aholku:

Sartzerok, arazorik izanez gero, GLIZERINA erabili, edota EZ SARTU, Sexualtasunaren aukera zabal-zabala baita. Betiere:

KONDOIRIK GABE KOLTORIK EZ • HAZIRIK EZ IRENTS

ohar ekonomikoa: dohainik lor ditzakezu Planifikazio Bulegetan. Euki beti eskular baina ondo babestuar!

**EUSKALDUN & GOMADUN**

HANKA 1971 ID.



## ZER IRUDITZEN ZAIZU AITA MARI ZINEMA BERRIA ITXURAZ, ETA ZER NOLAKOAK DIRA ZURE USTEZ BERTAN EMATEN DIREN PELIKULAK?



**Haritz Beristain:**

Ondo. Ez da oso haundia, baina Zumairako nahikua, ez da haundio ber. Pelikulak berriz, onak dia, berriak. Leno zarrak ematen zituzten, baina orain ondo dao.



**Nora Berastegi:**

Oso ondo dao. Gainera behar zen holako zerbait Zumaian. Antzerkiak eta egiteko ere ondo dao. Pelikulak ere oso ondo daude, berriak dia, Donostiatik eta segituan honea ekartzen dituzte eta.



**Goiz Eder Salegi:**

Ondo dao. Polita da. Baina umiantzako pelikula gutxi ematen dia, botatakuak halare gustokuak ditut.



**Imanol Azkue:**

Itxura, kanpotik, modernuegia iruditzen zait. Barrutik, komodua eta egokia da. Pelikulak berriz, onak dia. Ni noizian behin juten naiz igande gabetan eta ez dakat pegarik.



**Jon Argoitia:**

Ondo dao. Nahiko dotore, eta komodua da. Pelikula onak botatzen dituzte, ez naiz askotan juten baina. Baina uste det astian zehar ere beharko litzatekela, udaran behintzat. Baina igual garestigia da.



**Esti Esteibar:**

Zinema, itxuraz gustatzen zait nola dagon. Beharrezkua zan zine bat Zumaian. Ni gutxitan juten naiz. Uste det pelikulak ez diala txarrak, baina hobeguak ere ekartzia egongo zan. Zine foruma jartzia ondo egongo zala iruditzen zait.



**Dionisio Sanchez:**

Dana ona. Sonidua zoragarria dauka, lokala ere earra da. Lenguakin ez dao konparatu ere egiterik. Butakak ere oso alaiak iruditzen zaizkit. Pelikulak berriz, oso onak. Tartian bi edo hiru bota ditue txarragoak baina; ni ia daneta juten naiz.

# KIROL TALDEAK DENBORALDI BERRI BATI BEGIRA

Eskubaloi taldea gero eta zabalagoa da.  
Futboleko talde nagusiak Erregionaletan jokatu du.

Irailean herriko kirol taldeek denboraldi berri bati hasiera ematen diote. Eskubaloian eta futboleko direktibak osatzeko arazo ugari izaten dituzte, jende gutxiarekin lan asko eginez. Beren helburua lana hobeto banatuz, oreka bat lortzea da, kiroleko helburuak ahaztu gabe, nola ez.

Baleike



Garai bateko talde honek jarraitu izan balu...

Hasi dira dagoeneko talde ezberdinak prestaketak egiten hurrengo denboraldi luzeari begira. Konpetizioa hastera doan hilabete honetan sorpresa bat baino gehiago izango da. Sorpresa horien artean azpimagarrienetako bat Zumaiako Futbol Taldeak aspaldiko partez erregional mailan jokatu duela.

## Entrenatzaile berria

Talde honek gainera aldaketa handia jasan du. Batetik, Oskar Kastro izango da entrenatzaile berria eta bestetik, jende gazte asko talde nagusira igo da. Jose Antonio Alberdi Zumaiako Futbol Taldearen presidentek adierazi digunez, "asmoa berriro preferente mailara

igotzea da". Argi du hala ere, ez dela batere erreza izango. "Behin jeitsiz gero, oso zaila da berriro mailaz igotzea, edozein modutara, aurten bildutako jendearengan konfidantza guztia degu".

Entrenatzaile berria ezartzearen arrazoia honako hau dela esan digu: "Oskar Kastrok Zarautzeko jubenil taldea entrenatzeko eskeintza zuen. Guk ez genuen nahi bera beste nonbaitera joaterik, eta honela talde nagusiaren ardura hartzea eskeini genion. Kontuan hartu gainera aurreko denboraldia ez dela batere ona izan".

"Asmoa berriro ere preferente mailara igotzea da".

Diru aldetik badirudi nahiko ondo dabilzala, ez dutela arazo gehiegirik. "Ez soberan ezta faltan ere. Honbre, dirua ez da inoiz soberan egoten eta pixkat gehio izango bagenu hobe, baina ez gera keitzen". Patrozinadoreak eta Udalak diru laguntza bat ere luzatzen diete. Denboraldi honetan edo hurrengoan gainera, Udalak grada txiki bat eraikiko duela hitz eman die direktiboek.

KOSTA GAS



GAS ETA  
KALEFAZIO  
INSTALAZIOAK

Etxezarreta, 6 • Tfnoa 86 10 78 • 20750 ZUMAIA (Gipuzkoa)

expert  
ELEKTROGAILUAK



Mertxe Aizpurua  
expert eta  
Repsol-Butanoren  
Banatzaile Ofiziala

ITZURUN  
KIROLAK

Amaiako plaza, 13  
Telef. 860758  
20750 ZUMAIA



Hau da hau itxuraldaketa !!

## ESKUBALOIKOAK ERE HASTEAREN

Pulpo Eskubaloia Taldean, futbolean bezalaxe, direktibo gutxi eta betikoak daude, hauxe delarik beren arazo handienetarikoa bat. Gero eta talde gehiago daude eskubaloian (lau gizonezkoak, bi emakumezkoak) eta hauek aurrera eramateko dagoen direktibak lan handiak egin behar ditu.

### Mailaz igotzea

Talde nagusia urtero urtero dabil igotzekotan, eta igotzen denean ere arrazoi batzuk edo besteengatik azkenean ez dute bere helburua lortzen. Pulpo eskubaloia taldeko presidentearen esanetan "urtero berdin gaude eta arazo berdinekin gainera. Alde batetik herrian eskubaloiak ez du kuajutzen, honek

noski baldintzatuz dirua emateko garaian. Orain dela urte batzuk berriz, igotzea lortu genuen, baina maila honetan jokatzeko suposatzen zuena jokalariei azaldu ondoren, hauek atzera bota ziren".

**"Gaur egun oso zaila da eskubaloitik bizitzea".**

Bestalde, eskubaloian beti egon dira herrian kalitate handiko gazte asko, gero ordea ez dutenak lortzen maila hori mantentzea. "Arazo hau kirol guztietan gertatzen da. Gaur

egun eskubaloian jendea oso azkar erretiratzen da, 25 urte egin baino lehenago. Maila altu hori mantentzearen arrazoi nagusia ikasketak direla dio. "Taldea batek gazte bat fitxatzen duen momentutik arazo handi batekin topatzen dira: ikasketak. Oztopo handia da. Gainera hemendik kanpora irten diren guztiak ondo dakite ez direla eskubaloitik biziko, gaur egun oso zaila baita hori egitea".

Beraz, ezin dezakegu esan itxaropen handiegirik dagoenik taldea mailaz igotzeko, ikusirik zer gerta daitekeen helburu hori lortuz gero. Espero dezagun hala ere, orainartekoa atzean utzi eta etorkizuna, urte honetatik hasita beste bide hobeago batzutatik jotzea.



**SORGINA**  
**ARTISAUTZA**

Baltasar Etxabe, 2. behea  
Telefona: 143229 20750 ZUMAIA

**KALARI** TABERNA  
JATETXEA

- \* Eguneko menua
- \* Plater konbinatuak
- \* Kaxuelak - Otartekoak

Erribera, 16 Tfnoa: 860660 ZUMAIA

Bertsoek ere gure aldizkari honetan tartetxo izan beharko luketela iruditzen zaigu eta Zumaia bertsozaleak goxatzeko hemen doazkizue lehen aleak. Iazko San Telmotako saioan bildutakoak dira; urtero bezela, Maria eta Jose ikastetxean izan zen eta antzokia leporaino bete zuten hara bertaratu ziren 800 lagunek.

## EUZKITZE - S.LIZASO

### Zumaia 1993-4-16

**GAIA:** Euzkitze, Bill Clinton da, eta Sebastian, bere guardaespaldas. Clintonek egunero footing egiteko ohitura du, baina bere guardaespaldasak ez, eta hor ibiltzen da bere atzetik larri.

**NEURRIA:** 8ko txikia

**DOINUA:** Nere senarrarekin

**S.Lizaso**

-1-

Clinton ez zaidazu jo  
neri adarrikan,  
goizero ez da hola  
ibili beharrikan,  
zure atzetik ez naiz  
joango alperrikan,  
motorra ekarri edo  
segi bakarrikan.(bis)

**S.Lizaso**

-3-

Ez naiz asko harritzen  
hortaz ohartzea,  
hori da zure lanak  
dakarren trantzea,  
eta gertatzen bada  
tiroka hastea,  
ez dezu ba usteko  
parean jartzea.(bis)

**S.Lizaso**

-5-

Arrazoia badezu  
hori galdetzeko,  
ta ez zaitea jarri  
kopeta beltzeko,  
Etxe zurian nago  
ni zure antzeko,  
lan gutxi egin eta  
ondo kobratzeko.(bis)

**Euzkitze**

-2-

Horrelakorik ez zait  
esan orain arte,  
tipo hauek aurpegi  
galanta daukate,  
beti ibiltzen zera  
nigandik aparte,  
zugatik baldin bada  
lasai hilko naute.(bis)

**Euzkitze**

-4-

Ez dakit zure esana  
egia izan den,  
enteratu naizenez  
potroso bat omen,  
"paren ez naiz jarriko"  
bota dezu hemen,  
Pozik jakingo nuke  
zertarako zauden.(bis)

**Euzkitze**

-6-

Zure ateraldiak  
ez dira txukunak,  
hara zer bota didan  
ondoko lagunak,  
zure alperkeriak  
dira ezagunak,  
beraz bi bagera hori  
egiten degunak.(bis)

**EGOKI**  
ERLOJU DENDA

E. Gurrutxaga plaza, 6  
ZUMAIA



Surf

Torre Luzea, 2  
Tel. 83 50 24  
20800 ZARAUZ

Erribera, 2g  
Tel. 86 23 69  
20750 ZUMAIA

**FRONTON**  
TABERNA

E. Gurrutxaga plaza  
Tel. 862172 ZUMAIA

**S.Lizaso**

-7-

Nunbait bi izatea  
ez dezu graziko,  
baina lagun hoberik  
ez zun mereziko,  
zugandikan lanean  
ez det ikasiko,  
eta korrika ere  
ni ez naiz hasiko.(bis)



Aurtengo saiora ezin izan zuten etorri Sebastian Lizaso eta Xabier Euzkitzek.

**Euzkitze**

-8-

Gizon efikaza da  
bere baldarran,  
baina orain jarri naiz  
postura txarrian,  
nago metodoren bat  
hartu beharrian:  
Montekristo bat jarri  
muturran aurrian.(bis)

**S.Lizaso**

-9-

Sistema hori ez zan  
zuretzat kaltean,  
aproba egin zazu  
tarte-tarte;  
"jarriko det -zenion-  
ahoa betean",  
baina ostu dizkizut  
lo zeunden artean.(bis)

**Euzkitze**

-10-

Honekin gauza onik  
ez da aterako,  
kontratatu nuan da  
neure kalterako,  
beraz neurriak hartzen  
ausartu beharko,  
boluntario zaude  
kalabozorako. (bis)

**goofy**  
HAUR JANTZIAK  
Amaiako plaza, z/g  
Telef. 860959  
ZUMAIA

**Amertze**  
Erribera Kalea, 6  
Telefonoa: 86 17 07  
Fax: 86 17 07  
20750 ZUMAIA (Gipuzkoa)

**Xanti**  
ALTEARIAK  
Amaiako plaza, 7  
Tel.- Fax: 862385  
20750 ZUMAIA

**leize**  
**TABERNA**  
Juan Belmonte, 6  
Tel. 860415 ZUMAIA

**CORO**  
**PRIETO**  
*Esteticista*  
Bonifazio Etxegarai plazatxoa z/g  
Telefonoa: 861322  
ZUMAIA

julio curiel  
**S**  
PELUJERO  
Erribera kalea  
Telefonoa: 862334

# NOR ZEN JULENE AZPEITIA ?

**Bere garaian lan ugari egin zuen Zumaian jaiotako maistra honek.**

Zumaiaiko ikastetxe batek ere bere izena hartu zuen, baina hala ere ez da oso ezaguna Julenek egindako lana, gazteen artean batez ere. Lerro hauen bidez emakume langile honen bizitza eta lanen laburpentxo bat eskeintzen dizuegu, lehen ezagutzen ez zuenak zertxobait behintzat jakin dezan.

*Baleike*

Julene Azpeitia Zumaian jaio zen 1888ko urtarrilaren 8an, eta 1980ko otsailaren 5ean Bilbon hil zen 92 urte zituela. Euskaltzale eta maistra fina izan zen eta haren bizitza luzea bi hitzetan laburtu behar izango bagenu, *Umeak* eta *Euskara* aipatuko genituzke. Aizarnazabalen aritu zen, maistra, eta garai hartan apendizitis gaizto batek hiltzorian eduki zuen, baina denon mesederako ondo sendatzea lortu zuen.

1911an Valladolid-eko oposaketetan lehena geratu zen, eta handik etorrira, Bizkaiko ikastoletan irakasten jardun zuen. 1916an Enrike Eskauriatzarekin ezkondu eta Mexikora joan ziren elkarrekin. Lau urtez bizi izan ziren han eta bitartean Julenek hango euskaldunek urtean behin ateratzen zuten "magazine"an idazten zuen. Handik itzuli ondoren, irakaskuntza munduan jarraitu zuen Gorliz, Burgos eta Markinan.

## Apala eta euskaltzalea

Jainkoarekiko sinesmen sakonarekin batera, familiarekiko maitasuna, euskararenganako fedea eta adorea ditugu Julene Azpeitiaren idazki, solasaldi eta gutun guztietan mezurik zainduenak. Jarrera intelektualetik izatetik urrun, momentuoro zuen gogoan hizkuntzaren egoera.


Haren ipuin ugari herri tradizioetik hartuak direnez, ez dira guztiz berriak, baina orijinalak dira aurkezteko

orduan, umeentzako eran apainduak baitira. Estilo zuzen eta arina, hiztegi zehatza eta egitura sinplea erabiliz, ardura haundia erakutsi zuen hizkuntzarekiko eta gipuzkera nahiz bizkaiera erabili zituen bere lanetan.

Kultur emakumea izan zen Julene; literatur lehiaketetara aurkeztu eta zenbait sari bereganatu zituen, haibat aldizkaritan argitaratu zituen bere artikuluak, irratsaio ugari egin zuen eta kultur mailako pertsonaia publikoekin ere izan zituen harremanak.



*Julene "Zuentzat" liburuaren aurkezpenean, Donostian, 1974ean.*



**AIZPURUA**  
LIBURUTEGIA  
OPARIAK

Aitu-Mari Auzategia, 17  
Telefonoa: 861569  
20750 ZUMAIA

Opari artikuluak

# algorri

Lurrindegia




---

Erribera kalea, 5    ZUMAIA    Telefonoa : 862398

# J.AZPEITIA IPUIN LEHIAKETA

## Zumaiarren parte hartzea bultzatu nahi da

Hauek dira Juleneren lanik ezagunenak: *Irakurri matte* liburu pedagogikoa, *Osasuna, merketza eta janaritza* sukalde liburua, *Amandriaren altzoan*, *Azeri jauna* eta *Zuentzat* ipuin eta irakurgai liburuak eta zenbait ipuin solte.

Irratigintzan ere lan oso garrantzitsua burutu zuen eta aldizkarietan ehundaka artikulua utzi zizkigun, *Arritokieta* ezizenarekin, batez ere "Euzkadi" egunkarian eta "Karmel", "Yakintza", "Egan" eta "Zeruko Argia" aldizkarietan.

### Ardura pedagogikoa

Bokazioa huraxe zuen eta maistra lanetan aritu zen urte askoan, irakasteko nahiak gehiago ikastera bultzatu zuelarik. Haren jarrera pedagogikoa, ikasgelan ezezik handik kanpo ere agertu zen, gutun eta artikulugintzan bezala eguneroko ekintza arruntetan. Irakasteko grina, batez ere umeekikoa agertu zuen Julenek; nola jardun, euskara irau arazteko, eta berau umeengan biziberritzeko? Horixe zen haren funtsezko galdera eta erantzunak bilatzen saiatu zen: euskarazko ipuin, kanta eta irratsaioak bultzatuaz, ...

Bizitza luzea eta emankorra izan zuen Julene Azpeitiak eta lan oso garrantzitsua egin zuen bai irakaskuntza bai literaturgintza arloan. Horregatik saritu zuen Euskaltzaindiak 1975ean eta horregatik merezi du ikastetxe eta ipun lehiaketa bati izena emateaz gain, zumaiar guztiok haren izena eta lana gogoan izatea.

1988an, Julene Azpeitiaren jaiotzaren mendeurrena zela eta, hitzaldi eta jardunaldi batzuk izan ziren Zumaiian. Ordurako sortu zen lehiaketa bat egiteko ideia eta egokiena ipuiena egitea zela erabaki zen.

Zumaiako Udaleko Euskara Batzordeak proiektu hau martxan jartzea lortu zuen, KUTXAren laguntza ekonomikoarekin eta sei urte hauetan fama eta maila aipagarriak lortu ditu literatur munduan, sariak ere ez baitira txantxetakoak.

Ondoko zutabeen ikus daitekeenez, izen ezagunak izan dira irabazleen artean, baina baita bestelakoak ere. Urtero, gainera, aurreko edizioko lanik onenekin liburu bat ateratzen da, sari banaketa egunean dohain banatzen dena.

1989tik aurrera zumaiarren arteko lanik onena ere saritzen da eta Ane Miren Azkue (bi aldiz) eta Daniel Carballo izan dira irabazleak. Hala ere bi urtetan sari hau eman gabe geratu da, beraz oso garrantzitsua da zumaiarren parte hartzea bultzatzea.

Euskaraz idazten ondo moldatzen bazera, aspalditik buruan dabilkizun ideia hori gutxienez 12 orritan azaltzera animatu eta aurkeztu udaletxean irailak 30a baino lehen.

Gogoratu **125.000** pztako saria dagoela eta zalantzarik badezu udaletxeko Euskara Batzordean argituko dizutela dena.

**ANIMA ZAITEZ !!**



### 1988

- 1.saria: Karlos Antruejo
- 2.saria: Karlos Linazasoro

### 1989

- 1- Arantxa Iturbe
  - 2- Juan Luis Zabala
- Zumaiarren lanik onena:  
Daniel Carballo

### 1990

- 1- Patxi Ezkiaga
  - 2- Karlos Linazasoro
- Zumaiarra: Ane Miren Azkue

### 1991

- 1- Edorta Jimenez
  - 2- Iñaki Bernaola
- Zumaiarra: -

### 1992

- 1- Iñaki Bernaola
  - 2- Hasier Etxeberria
- Zumaiarra: Ane Miren Azkue

### 1993

- 1- Patxi Aizpurua
  - 2- Eva Linazasoro
- Zumaiarra: -

**Auto - Konponketak**

# ELKAR





**PEUGEOT**

**Estazioko kalea**  
**20750 ZUMAIA**      **Telefonoa: 860201**



**HARATEGIA**  
**URDAITEGIA**

Itzurun Zubaitz-bidea, 1  
20750 ZUMAIA      Telefonoa: 862430

Gure herrian orain artean ez dugu ia mobidarik izan musika munduan -rock taldeak etab...- Zergaitik? Beno arrazoia zera izan daiteke, gaur egun rock talde bat osatzeko eta gauzatzeko behar diren materialak nahiko garestiak izateaz aparte, ongi insonorizatutako lokal bat beharrezkoa da inor haserrarazi gabe ekiteko. Historio guzti honen ondorioa betikoa da: dirua behar dela eta normalean gazte izanik ez da posible ekintza hau aurrera eramatea. Guzti hau penagarria da, zeren gaztetandik musika egiten hasiz gero, dudarik ez dago aukera gehiago eta esperientzia gehiago edukiko dituzula denbora aurrera joan ahala, nahiz eta musika egiteko adin mugarik ez egon.

## BAINAN ZUMAIAN BADA ZERBAIT !!!

Entzuna bezain egia da rock-a alternatiba bat bihurtu dela ohiturazko erakundeen, egoeren eta bizimoduaren aurrean eta hori erakusteko Zumaiako zaletu batzuri esker, iaz Musika Eskolan kurtso berri bat dastatzeko aukera izan genuen. Kurtso hauetan kitarra elektrikoa eta bateria izan genituen.

Datu oso aipagarria iruditzen zaigu, hiru pertsona ezik beste guztiak (hogei baino gehiago) hemezortzi urtetik beherakoak zirela. Honek duen garrantzia kontutan izan lehen esandakoarekin.

**Ikastaro hau bezelako ekintzek, gazteak interes amankomun baten inguruan elkartzea lortzen dute, asteburuak aberatsagoak bihurtzen ditu.**

Lehen urtea izanik normala denez, gauzak ez zeuden formalki oso ongi antolatua eta materialarekin



*Beñat izan zen ikastaroko ikaslerik gazteena.*

nahiko justu ibili ziren, baina halere helburu batzuk beteak izan ziren. Zumaiako herrian badagoela beste aukera bat nahiko argi geratu zen., ekainaren 25ean (kurtso bukaeran) Profesional Zaharrean ikusi ahal izan genuen kontzertu berezi hartan.

### Musika eskolaren lana

Besterik gabe eskerrik beroenak eman nahi dizkiegu Musika Eskolan lanean egon diren irakasleei, zeren

mugimendu musikal honen benetako balorea bilatzen (betidanik nahiko geldia izan dena herri honetan) herriko

**Ikaslerik gehienak 18 urtetik beherakoak izan ziren, eta hau, benetan garrantzitsua da.**

**IHINTZA  
TABERNA**

Ortega y Gasset,3  
Tfnoa: 860472  
ZUMAIA

**TXALAPARTA  
OPARIAK**

Angeles Sorazu, 2  
20750 ZUMAIA  
(Gipuzkoa)

Telf. 14 30 89  
Fax. 43 06 37

**JEMAR**

**LOREDE NDA**

LANDAREAK  
LOREAK  
HAZIAK  
ZERAMIKAK

Erribera, 1 Telefonoa: 860375  
20750 ZUMAIA




gazteen nahiak eta gogoak bideratzen asmatu baitute. Hau da: gaztedia benetan gustokoa duen zerbaitetan buru belarri lanari ekitea; gazteak interes amankomun baten inguruan elkartzea; asteburuak aberatsagoak eta pertsonalagoak bihurtzea; Udalaren aurrean talde sozial bezala jarrera elkartua agertzea. Azken finean, musikaz disfrutatzearekin batera, sormenari irtenbide bat ematea eta rockaren bidez kontzientzazio batera iristea herri honek eta gizarte honek gazteari eskeintzen dionaren aurrean.

ESKERRIK ASKO.



Palo degu bateriaren makilen errege.



## anima vili

MAKETAK

Talde honen partaideak Natalia, Jokin eta Joxi ditugu; noski, hiru pertsonak bakarrik ez dute lan guzti hau egin eta horregaitik hainbat jenderi eskerrak eman beharrean aurkitu da talde hau, bere maketaren barnean azaltzen den bezela. Tolosarrak ditugu eta bere abeslea Jokin jauna, Deabruak Teilatuetan aurkitzen ditugun bi anaien etxe berdinekoa dugu (haien anaia dela esan nahi dugu).

Maketa hau entzunez gero ahots berezi hori somatu dezakegu, Ubeda anaien ahotsa alegia. Zein den hobeago edo landuago ez goaz esatera, baina ANIMA VILI taldekoek bere ahotsen bidez eta bateria bortitz eta kalitate haundiko baten bidez, maketa honi hard-core amerikar itxura nabaria eman diote. Indarra eta kemena ez zaie falta sei kanta euskaldunez hornituriko eta Amadeus estudioetan grabaturiko lan honi.

Zorte ona opatzea besterik ez zaigu falta. Aurrera eta kaña! ■

**TXOKO  
TABERNA**

Artadi auzoa  
ZUMAIA

*Jesuskoa  
Fatelea*



Arca 86 17 39 • C/Itia - Zumaia



## KATE HITZAK



**8 letra**  
 Datozkit  
 Eratzana  
 Irakatsi  
 Oneritzi

**7 letra**  
 Bertute  
 Esatari  
 Indarra  
 Isatsak

**4 letra**  
 Bana  
 Bare  
 Bete  
 Dira  
 Elea  
 Enda  
 Esak  
 Eten  
 Euri  
 Inka  
 Izen  
 Kaia

**3 letra**  
 Kaki  
 Kasu  
 Lana  
 Naiz  
 Obus  
 Oloa  
 Oren  
 Reus  
 Sasi  
 Soka  
 Sona  
 Umea


**3 letra**  
 Aia  
 Nor  
 Sor  
 Ter

**2 letra**  
 DI  
 Er  
 Is  
 Lo  
 Ra  
 Re  
 Ua  
 Zi


## GURUTZEGRAMA

**EZKER ESKUIN:** 1.-Giroa berotzeko tresna. 2.-Aberats bihurtu direnak. 3.-Errepikatuz, gorotza. Daukat. Röntgenen sinbolo kimikoa. Bokala. 4.-Andrea. Iridioaren sinbolo kimikoa. 5.-Kontsonantea. Lehen eta azkenekoa. Adar. 6.-Du. Maluta zuritan erortzen den ur izoztua. 7.-Besteren mendeko ez dagoenaren egoera. 8.-Bostehun. Areagotzeko partikula. Herri hizkeran, eta. Kontsonantea. 9.-Arte, antze. Bizkia. 10.-Pluralean, azalera neurria. Bokala. Iparraldean, zakur.

**GOITIK BEHERA:** 1.-Bakartasuna. 2.-Bizkaieraz, zuen. Arsenikoaren sinbolo kimikoa. Kontsonante bikoitza. 3.-Musika nota. Dute. 4.-Zerbait edo norbait ordezkatzeko duena. 5.-Egun. Sarrera. Potasioaren sinbolo kimikoa. 6.-7 egun. Bokala. Boroaren sinbolo kimikoa. 7.-Idi, hitz elkarketan. Kantua. 8.-Lurralde. Aldrebesak. 9.-Arabako alderdi espainiarra. Gipuzkoako hiria. Jupiterreko satelitea. 10.-Ahuntzaren ar. Detektagailu.



MILA ILE APAINDEGIA



Ile - kosmetikan diplomatua

Foruen Enparantza, 13 - 1 Tfnoa: 861160  
 ZUMAIA

**ONCE**

**JOXE  
 MANUEL**

**Kupoi batzuk  
 erosi eta ...**

**ZORTE ON !!**

**ITSASKI**

**SUPERMERKATUA**

Urumea kalea, z/g  
 20750 ZUMAIA

**OHARRAK**

Garai batetan bertsoan ibilitako jendea, bertsolari frakasatuen afari bat antolatu nahian gabiltza. Interesatu ezkeru Bertso Eskolakoekin hitz egin.

**AGURRAK**

Mingaina jan ta gero txukuna ibiliko haiz. Mutu, ez damutu!!

Zorua: etziok potroik Aita Marin estatuai txixa parrasta batekin begian jotzeko. Hil ta pakia!

Aurten ere kontxako estropetan alde zaharrean gorriyak nagusi (gasagaz).

Gortu, ta tximuak bihurtu!

Ez,ez,ez, bolantarik ez!!!

**ALDIZKARI HONEN SALMENTA PUNTUAK**

- Zumea
- Jesuskoa
- Errota
- Ogi Berri (poligonokoa)
- Arkupe okindegia
- Alai janaridenda
- Aizpurua liburudenda
- Olano liburudenda
- Erkibe
- Nikol kafetegia
- Leize taberna
- Inpernupe taberna

**G**utunak

**SEXUALITATEA  
ETA ESAERAK**

Gutun honen bidez, "Baleike" 2.go alean sexualitate atalean azaldu diren "esaerei" buruz gogoeta bat egin nahiko nuke.

Ulertezina egiten zait herri aldizkari batean zuzenean emakumea erasotzen duten esaldi horiek agertzea. Ez diet inolako zentzurik aurkitzen. Nolako astakeriak diren agertzeko jarriak badira gutxienez azalpen bat jarri behar delakoan nago eta txiste moduan jarriak badira ez dute batere graziarik. Historian zehar emakumea beti agertzen zaigu bigarren mailako pertsona gisa, beti gizonaren menpe eta zerbitzurako. Gaur egun, zoritxarrez, askok eta askok horrela jarraitzen dute, nahiz eta emakume

talde handi batek, aurrera darraien borroka luze baten ondorioz, pertsona aske izan eta "berdintasunean" bizitzeko ahaleginak egiten ditugun.

Horregatik, oraindik ere horrelako esaldiak irakurtzen ditudanean minduta sentitzen naiz, eta ni bezala beste asko, denon artean gaintitu behar dugun etapa bat isladatzen baitute. Horrelako zita, komentario eta abarrek, beti ere emakumea bazterturik erakutsiz, grazia "txinparta" bat besterik ez dute sortzen, arazoaren azalean geldituz eta mamira jo gabe. Adibide gisa, hemen jarriko dizkizuet eduki aldetik egokiagoak iruditzen zaizkidan pare bat aipamen:

- "Eme sentiberatzat" hartua izateaz nekatua dagoen emakume bakoitzeko, negar egin eta fina izateko eskubidea kendu dioten gizon bat dago.

- Objetu sexual bat izateaz nekatua dagoen emakume bakoitzeko, etengabe sexualki eginkorra izan dadila eskatzeaz nekatua dagoen gizon bat dago.

(Agenda Latinoamericana, 94)

**A.U.O.**

**N.A.N.: 72.440.644**



**Taosa** SURF DENDA

- \* Bainujantziak
- \* Surfeko tablak
- \* Poliesterrezko plastifikatzeak
- \* Erropetako serigrafia
- \* Toallak
- \* Erropak

Erribera Kalea, 17 - 20750 ZUMAIA

**Urriko zenbakia prestatzen eta lantzen ari gara jadanik. Zure gutun, iritzi, mezu edo beste edozein lan guk argitaratzea nahi badezu, bidal itzazu Foronda Kultur Etxera, irailak 16a baino lehen.**



# Solozabal autoeskola

Gidariak lantzen onenak



## Gidatzeko karnet guztiak


- Klase teoriko zein praktikoak norberak nahi dituenean.
- Klase teoriko ikusentzunezkoen abantailak erabilita
  - Merkantziak eta bidaiariak garraiatzeko eta nazioarteko agentzietarako ziurtagiriak lortzeko ikastaroak.

P. Etxezarreta, 19 - Bis

Tel. 861416 • Fax: 861416

ZUMAIA

# SAGA



## ESTUDIO eta DISEINUA

**PVC, POLIURETANO ETA ALUMINIOZKO ATE, LEIHO ETA PERTSIANAK**

ARMAIRU ENPOTRATUAK ■ BAINU MANPARAK ■ TOLDOAK

**Fabrikako prezioak  
Eskulanik gabe**

**Pantxita Etxezarreta kalea, 13 Behea  
20750 ZUMAIA ■ Tel-fax: 943- 86 14 78**